


EUSKALDUNTZE INDIZEA %6 HOBETU DA ELKARGOETAN

laz hasitako *Elkargoak Euskaraz* proiektuaren lehenengo balantzea egin da eta, oro har, emaitzak nahiko positibotzat hartu daitezke. Erakunde ia guztietan hobekuntzak egon dira eta euskararen erabilera, berbaz eta idatziz, handiagoa izan da.

Igoera handiena Irudian izan da (errotulazioa, argitalpenak, ekitaldiak eta webguneak), %9koa. Ondoren Kanpo Komunikazioetan % 6, eta, azkenik, Barruko Komunikazioetan % 4.

Egon diren **hobekuntza aipagarrienak** honakoak dira: hiru euskara talde eta euskara teknikoa eskaintzea, Euskaraldian 20 arigune eta 145 partaide egotea, elkargoetan euskara koordinatzailea izendatzea, lau prestakuntza pilula eskaintzea, elkargokideei online bidez zerbitzuak eskaintzea (hiztegia, zalantzategia...), Jakizu berripaper hau partekatzea, etab.



EL ÍNDICE DE EUSKERA DE LOS COLEGIOS OFICIALES SUBE UN 6%

Se ha realizado un primer balance del proyecto *Elkargoak Euskaraz* iniciado el año pasado y, en general, los resultados pueden considerarse bastante positivos. En casi todas las entidades ha habido mejoras y el uso del euskera, tanto hablado como escrito, ha sido mayor. El mayor incremento se ha registrado en Imagen (rotulación, publicaciones, eventos y webs), con un 9 %. Le siguen las Comunicaciones Externas con un 6 % y las Internas con un 4 %.

Las mejoras más destacables han sido: ofrecer tres grupos de euskera y uno de euskera técnico, 20 arigunes y 145 participantes en Euskaraldia, nombrar coordinador-a de euskera en los colegios, ofrecer cuatro píldoras formativas, ofrecer servicios online a colegiadas y colegiados (diccionario, aclaración de dudas...), la difusión de este boletín Jakizu, etc.

HIZTEGIAK KLIK BATEAN

Elkargoen intranetean dugun *Elkargoak Euskaraz Txokoaren* bidez tresna praktikoa honetara sartu gaitzake. Hor, bilaketa bakarrarekin elkargoko eta Interneteko hiztegi erabilienak ikusi ditzakegu. Eta badago arlo honetan galdetzeko aukera. Ezagutu nahi?



DICCIONARIOS EN UN CLICK

En la intranet de tu Colegio tienes el *Txoko de Elkargoak Euskaraz*, desde el cual podemos acceder a esta práctica herramienta. Ahí en una sola búsqueda podemos acceder al diccionario del Colegio y a los más utilizados en Internet. Además hay opción de solicitar ayuda. ¿Quieres conocerlo?

5. Pilula – HIZTEGIAK – DICCIONARIOS – 5ª Píldora

AGATE DEUNA ETA MAKILEN KOLPEAK

Agate edo Ageda bere sinesmenei eusteagatik eta emakumearen duintasuna defendatzeagatik hil zen. Baina guk, zergatik ematen ditugu makilarekin kolpeak egun horretan? Hemen antzinako tradizio honen balizko erantzun bat: ohitura horrek jatorria euskal mitologian izan dezake, eta, horren arabera, makilakadek lurra itzartzen dute neguko solstiziotik udaberri emankorrari bide emateko. [Agate Deuna](#).



SANTA ÁGUEDA Y LAS MAKILAS

Agate o Ágeda murió por mantener sus creencias y defender la dignidad de la mujer. Pero ¿por qué damos golpes con un palo ese día? Aquí una posible respuesta a esta antigua tradición: esta costumbre puede tener su origen en la mitología vasca, según la cual los golpes despiertan la tierra desde el solsticio de invierno para dar paso a la fructífera primavera.

[Santa Ageda](#)